

DIRU-ITURRIAK

Aktiboen salmenta da gure enpresaren diru-sarrera nagusia, hain zuzen ere, diseinu eksklusiboko tupperrak dira gure aktiboak. Gainera, ordainketa bakarreko diru-sarrerak dira. Prezioa dinamikoa da eta horren barruan denbora errealeko merkatua: eskaintza eta eskaeraren legearen arabera finkatzen da prezioa. (Gutxi gorabehera diru-sarreren %70 izango da)



Kontuan izanda proiektua hasterakoan gastu asko izango ditugula eta seguruaski aurreko diru-sarrerak nahikoak izango ez direla, gure aurrezkiak inbertituko ditugu. Proiektua garatuta daukagunean eta lehenengo salmentak ditugunean, hasieran bakoitzak inbertitutako diru-kantitatea berreskuratu ahalko du. (Gutxi gorabehera diru-sarreren %30 izango da). Gutxi gorabehera 1000€ jarri beharko dugu taldekide bakoitzak. 5 taldekide garenez, 5000€ izango genituzke proiektua hasteko.